
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



**EUSKADIKO
EGOERA
SOZIOLABORALA**

2019KO EMATZEN AURRERAPENA

2019ko Emaitzen Aurrerapen hau argitaratuta, Lan Harremanen Kontseiluak negoziazio kolektiboak aurreko ekitaldian izan duen bilakaeraren lehen hurbilketa bat eman nahi du, bai eta 2020. urtearen hasieran zuen abiapuntuko egoeraren proiektzioa eta gatazkei eta enpleguari buruzko lehen aurrerapena ere. Gai horiek, besteak beste, sakon jorratuko dira berriro urteko txostenean.

2020ko martxoa

I. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA 4

**II. AFILIAZIOAREN, KONTRATAZIOAREN ETA
LANGABEZIAREN BILAKAERA 24**

III. ONDORIOAK 35

I. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAK

I.1. SARRERA

Atariko txosten honetan aurkezten den emaitza-aurrerapena Euskadiko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko gure datuetan oinarrituta egin da.

Egitura hori, enpresa eta lantoki guztien —eta, beraz, langile guztien— eta EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboan aniztasunaren arteko loturaren ispilu, halaber, Kontseiluak bi urtean behin egin eta berrikusten duen azterlan batean oinarritzen da.

Zehazki, erabilitako datuak 2018ko azterketari dagozkio. Horrenbestez, eta, negoziazio dinamiko baten bilakaera aztertzeko, kontraste-elementu gisa biztanleria estatiko batekin lan egitean, desberdintasun kuantitatibo batzuk sor daitezke, baina horiek ez dituzte ondorio nagusiak aldatzen, ez eta, are gutxiago, gure negoziazio kolektiboan hautematen diren funtsezko joerak ere.

Bestalde, hitzarmen kolektiboak hainbat kategoriatan sailkatzen jarraitzen dugu. Lan-legearen azken erreformaz (3/2012 Legea) geroztik, indarrean dauden hitzarmenen (eguneratuak) eta aurreraeragin-egoeran dauden hitzarmenen (beraz, berritzeko daudenak) arteko ohiko banaketaz gain, hirugarren kasu bat gehitu genuen: hitzarmen iraungiak, epe barruan ez berritzeagatik indarrean egoteari utzi diotenak. Hori izan zen, dakigunez, Langileen Estatutuan 2012an sartutako berrikuntzarik esanguratsuenetako bat (LEaren 86.3. artikulua).

Igarotako denbora gorabehera, gure txostenetan —eta, beraz, aurrerapen honetan ere bai—, sailkapen horri eustea erabaki dugu. Izan ere, ezin da inola ere ondorioztatu behin betiko utzitako eremuak direnik, tradizionalki negoziazio kolektiboak estalita egon arren unean-unean hitzarmenik gabe geratu direla baizik, euren hitzarmena ez delako berritu, eta goragoko mailako beste hitzarmen bat ez dagoelako.

Hori da, beraz, hitzarmen iraungien multzo hori eta inoiz aplikazio-hitzarmenik izan ez duten lanbide-jarduerako esparruak bereizten dituen; horiek dira gure ustez negoziazio kolektiboaren estalduratik kanpo dauden bakarrak.

I.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA 2019AN

a) 2019ko emaitza orokorra


Joan den urtea amaitzean, langileen % 61,1ek eguneratuta zituen bere hitzarmenak, 2019an itunpeko irakaskuntzan, ikastoletan eta Bizkaiko industria siderometalurgikoan lortutako akordioak ere kontuan hartuta.

Hala ere, ekitaldiaren amaieran hiru sektore-hitzarmen horiek erregistratu gabe zeudenez, ez ditugu txosten honetan kontuan hartuko. Hortaz, 2019aren amaieran, 311.814 pertsonak (langileen % 51,6) eguneratuta zituzten hitzarmenak, 202.216 langilek (% 33,4) hitzarmen luzatuak zituzten, eta 90.918 langilek (% 15), berriz, iraungita.

Hau da, azken urteetan baino langile gehiagok zituzten hitzarmenak eguneratuta, baita 2014an baino gehiagok ere; izan ere, urte hartan, ekitaldia amaitzean, langileen % 48,6k zuten hitzarmena eguneratuta. 2009ra egin behar dugu atzera ehuneko handiagoa aurkitzeko (% 57,7).

Ekitaldiaren amaieran, hitzarmenak iraungita zituzten eta goragoko mailako beste hitzarmen baten babesik ez zuten langileen ehunekoa ere azken urteetako txikienetako bat zen (% 15), 2018aren amaierakoa (% 14,9) baino hamarren bat handiagoa soilik.

1. GRAFIKOA
2019KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N




2019-01-01eko datuak

2019-12-31ko datuak

- Hitzarmenak iraungita dituzten eta goragoko mailako beste esparru-hitzarmenen babesik ez duten langileak
- 2019an luzatuta eta berritzeko dauden hitzarmenak dituzten langileak
- Hitzarmenak indarrean (eguneratuta) dituzten langileak

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, ez dago alde handirik, eta hitzarmenak indarrean zituzten emakumeen proportzioa (% 52,7) gizonena (% 50,6) baino apur bat handiagoa zen. Gizonen artean, hitzarmen iraungien kopurua handiagoa zen, batez ere, gizonezko langile asko zituzten bi hitzarmen iraungi zirelako: Arabako eta Gipuzkoako industria siderometalurgikoenak.



b) Ablapuntuko egoera

Urtearen hasieran, langileen % 34,2k hitzarmen eguneratua zuen.

Orobat, 2019an, 289 hitzarmen erregistratu ziren; hain zuzen, 103.536 langileren lan-baldintzak berritu ziren. EAEn erregistratutako akordioen kopurua handiagoa izan zen (210 hitzarmen, sektoreko 13 eta enpresako 197) EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenena baino (79 hitzarmen erregistratu ziren 2019an). Hala ere, akordio horiek babestutako langileen kopurua handiagoa izan zen EAEn eragina zuten Estatuko negoziazioetan (54.488 pertsona); gure erkidegoan garatutako negoziazioetan, berriz, 49.048 pertsona soilik.

1. koadroan, 2019an zehar erregistratutako hitzarmenen kopurua ageri da, bai eta hitzarmen horien eraginpeko langileen kopurua ere.

**1. KOADROA.
2019AN ERREGISTRATU ZIREN ETA EAE-N ERAGINA
DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK**

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZ.- KOP.	LANG.- KOP.	HITZ.- KOP.	LANG.- KOP.	HITZ.- KOP.	LANG.- KOP.
GUZTIRA (1+2)	246	31.244	43	72.292	289	103.536
1. EAEn erregistratutakoak	197	23.255	13	25.793	210	49.048
Araba	38	3.580	3	1.733	41	5.313
Bizkaia	91	9.926	5	8.575	96	18.501
Gipuzkoa	63	9.016	3	7.953	66	16.969
Lurralde artekoak	5	733	2	7.532	7	8.265
2. Estatu-mailakoak	49	7.989	30	46.499	79	54.488

Hortaz, 2019an, langileen % 17,4k berri zuen bere hitzarmena.

**c) EAeko negoziazio kolektiboaren egoera orokorra, 2019. urtea
amaitzean**

Laburpen gisa, 2019-12-31n negoziazio kolektiboa zer egoeratan zegoen azaltzen du 2. koadroak. Hitzarmen-kopurua eta hitzarmenek babestutako langileen kopurua ageri dira, lurralde-esparruaren arabera, eta hitzarmenak egoera (indarrean, luzatuta edo iraungita) kontuan hartuta daude sailkatuta.

**2. KOADROA.
HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HAIEN BABESEKO LANGILEAK
2019-12-31N, EGOERAREN ARABERA**

	INDARREAN		LUZATUTA		IRAUNGITA*		GUZTIRA	
	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.
GUZTIRA (1+2)	746	311.814	562	202.216	30	90.918	1.338	604.948
1. EAEn erregistratutakoak	535	183.930	426	164.306	26	90.205	987	438.441
Araba	113	36.267	70	9.543	5	16.490	188	62.300
Bizkaia	237	98.534	206	82.212	11	15.501	454	196.247
Gipuzkoa	171	38.691	124	41.052	10	58.214	305	137.957
Lurralde artekoak	14	10.438	26	31.499	0	0	40	41.937
2. Estatu-mailakoak	211	127.884	136	37.910	4	713	351	166.507

*Hitzarmena iraungita duten eta goragoko mailako hitzarmenik gabe dauden langileak.

d) Zenbait ohar alpagarri

Negoiazio kolektiboko gure esparruak berreskuratzeko joera positiboa sendotzen ari da. Aurreko urtearekin alderatuta, EAEn negoziatutako eta indarrean dauden hitzarmenek babesten dituzten langileen ehunekoak apur bat handitu zen.

Arabian eta Gipuzkoan, hitzarmena iraungita duten langileen ehuneko handia ez da ia aldatu 2018az geroztik; neurri handi batean, industria siderometalurgikoan sektoreko hitzarmenik ez dagoelako, nahiz eta Arabian esparru horretan negoziazio-prozesu bati ekin dioten. Halaber, Gipuzkoan ere negoziazio-prozesu bat hasi da; hain zuzen, 2020ko otsailaren 18an, industria siderometalurgikoko negoziazio-mahaia eratu zen.

Iraungita dauden hitzarmenak dagokienez, aurreko urtekoaren antzeko ehunekoak dute: langileen % 15ek izan du hitzarmen iraungia 2019an, eta % 14,9 izan zen 2018an.

Azpimarratu behar da, 2019ko datu onak gorabehera, EAEnko langile askok hitzarmena iraungita dutela oraindik ere, eta, gainera, ez dutela goragoko mailako hitzarmen baten babesik. Langile horietako asko duela hainbat urte daude egoera horretan; batzuk, 2013tik.

I.3. NEGOIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA, LURRALDE-ESPARRUAREN ARABERA

3. grafikokan ikus dezakegunez, negoziazio kolektiboak ez du bilakaera bera izan lurralde-esparru guztietan. Izan ere, alde nabarmenak daude esparru horien artean.

Negoiazio kolektiboa askoz dinamikoagoa izan da EAEn eragina izan duten Estatuko hitzarmenetan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan negoziatutakoetan baino; EAEn negoziatutako hitzarmenetan, aurrerapenak apalagoak izan dira.

Ekitaldiaren hasieran, langileen % 49,2k zuen bere hitzarmena berrituta Araban, eta, ekitaldiaren amaieran, berriz, biztanleria landunaren % 58,2 zegoen indarreko hitzarmen kolektibo baten babespean; ehuneko hori 2018ko abendukoa (% 56,4) baino zertxobait handiagoa izan zen.

Bizkaian, % 41ek zuen hitzarmena berrituta, eta, urtearen amaieran, biztanleria landunaren % 50,2k zuen hitzarmena eguneratuta; ehuneko hori 2018. urtearen amaierakoa (% 42,3) baino nabarmen handiagoa izan zen.






Azkenik, Gipuzkoan¹, urtearen hasierako % 15,7 portzentajezko 10 puntu baino apur bat gehiago handitu zen; hain zuzen, urtearen amaieran, soldatapeko % 28k zuen bere hitzarmena indarrean, 2018. urtearen amaieran bezalatsu (% 28,3).

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, aipatzekoa da esparru horretan zegoela urtearen hasierako ehunekorik txikiena (% 4,3). Dena den, 2019. urtea amaitzean, ehunekoa % 24,9 zen, 2018ko abendukoa baino nabarmen handiagoa; izan ere, orduan, langileen % 6,1ek soilik zuen hitzarmen eguneratua. Edonola ere, esan behar da ez zegoela langile bakar bat ere hitzarmena iraungita zuenik.

EAEEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, esan beharra dago 2019. urtea amaitzean hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa % 76,8koa zela (aurreko urtekoa, 2018koa, puntu bat baino zerbait gehiago txikiago izan zen), eta biztanleria landunaren % 0,4k soilik zuela hitzarmena iraungita. Hori gertatu da hasierako egoera hobea izateagatik (% 43,3k jada berrituta zuen 2019. urtearen hasieran), eta urtean zehar egindako negoziazioagatik, % 33,5ekoa izan baitzen.

¹ Haietako bat Gipuzkoako ehunkien merkataritzako hitzarmen kolektiboa da, 2018-06-28ko GAOn argitaratua. 2019ko urtarrilaren 15ean, EAEANek hari buruzko epaia eman eta estatutuz kanpokotzat jo zuen. Txosten hau amaitzean, hitzarmen kolektibo hori ez da irmoa.

3. GRAFIKOA
2019KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDE-ESPARRUEN ARABERA



2019-01-01eko datuak

2019-12-31ko datuak

- Hitzarmen iraungia duten eta goragoko mailako beste esparru-hitzarmenen babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2019an luzatuta eta berritzeko dauden hitzarmenak dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean (eguneratuta) dituzten langileen ehunekoa

2019an lortutako akordio nagusiak

2019an lurralde-esparru guztietan sektore-mailan lortutako akordioei dagokienez, honako hitzarmen hauek nabarmendu behar ditugu, duten garrantzia dela eta:

Araban, ehunkien merkataritzako, etxez etxeko arreta-zerbitzuko eta altzariaren merkataritzako hitzarmenak; guztira, 1.700 langile baino gehiago babesten dituzte.

Bizkaian, industria siderometalurgikoko hitzarmenaz gain (lehenago esan dugunez, 2019. urtearen amaieran erregistratu gabe zegoen), hauek dira aipatzekoak: salgaien errepideko garraiokoa, farmazia-bulegoena eta likore-fabrikatzaileena. Azken hiru horiek 8.000 langile baino gehiago dituzte babespean.

Gipuzkoan², orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioko, arte grafikoetako eta elikaduraren industria eta merkataritzako hitzarmenak nabarmentzen dira. Guztira, ia 8.000 langile babesten dituzte.


EAEko lurralde arteko esparruan, Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokien eta Osakidetzako garbiketa-zerbitzuaren enpresa-emakidadunetako langileen hitzarmenak nabarmendu behar ditugu. Guztira, 7.500 langile baino gehiago babesten dituzte. Haiez gain, ikastoletako eta itunpeko irakaskuntzako langileak ere hartu behar ditugu kontuan. Haien akordioak, 2019an lortu baziren ere, urtearen amaieran erregistratu gabe zeuden oraindik.

Hitzarmen horiek ez ezik, 2019an osasun-garraioko lurralde arteko esparruko hitzarmena ere sinatu zela aipatu behar da; esparru horretako lurralde-mailako hitzarmenak ordezkatu zituen. Hala ere, hitzarmen horren indarraldia 2020ko urtarrilaren 1ean hasi zen; hau da, ez da txosten honetako 2019ko datuetara aintzat hartu.

EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, honako hauek aipatu behar ditugu, babesten dituzten langileen kopuruari begira: Ingeniaritza eta Azterlan Teknikoetako Bulegoena, 16.000 langile baino gehiago babesten dituena; Arautu Gabeko Irakaskuntza eta Prestakuntzako, ia 10.000 langile babesten dituena; eta Higiezin Kudeaketa eta Bitartekotzakoa, gutxi gorabehera 2.300 langile babesten dituena.

² Ikus 1. oharra.

I.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA, LURRALDE-ESPARRUAREN ARABERA



Negoiazio kolektiboaren bilakaera lurralde-esparruaren arabera aztertuta, enpresa-hitzarmenek babestutako langileen % 58,2k hitzarmena eguneratuta zuen 2019. urtearen amaieran; sektoreko hitzarmenek babestutakoak % 49,4 izan ziren.

Ekitaldiaren amaieran, enpresa-hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa 2018. urtearen amaierako bera zen (% 52,8).


Hala ere, sektoreko hitzarmenei dagokienez, egoera oso bestelakoa zen

aurreko urteko egoerarekin alderatuta: 2019. urtea amaitzean hitzarmenak indarrean zituzten langileen kopurua 5,7 puntu handiagoa zen 2018koa baino.

Azkenik, aipatzekoa da oraindik ere sektore-esparruan biltzen direla hitzarmenak iraungita dituzten langile gehienak; aurreko urtearekin alderatuta, egoera hori ez da aldatu. 2018an, sektoreko hitzarmenen babespean zeuden langileen % 19,7k iraungita zuen hitzarmena; 2019an, berriz, ehuneko hori % 19,8 izan zen.

Enpresako eremu funtzionalean hitzarmenak iraungita dituzten pertsonen ehuneko txiki horrek bi arrazoi ditu: alde batetik, enpresako hitzarmenen negoziazioan bizitasun handiagoa izan delako, eta, bestetik, kasu gehienetan enpresako hitzarmenak iraungita dituzten langileei babesa emateko sektoreko hitzarmenak (probintziakoak edo estatukoak) daudelako.

Negoiazio kolektiboaren bilakaera, esparru funtzionalen arabera, 2019 amaitzean



2019an, hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa portzentajezko 3,5 puntu txikitu zen; haietako bat, berritutako enpresa-hitzarmenei esker, eta 2,5 puntu, sektoreko hitzarmenak berreskuratu zirelako.

Nolanahi ere, enpresa-mailako negoziazioak eragin txikia izan zuen estaldura-mailan, indarrean zein luzatuta zeuden enpresa-hitzarmenek babestutako langileen ehunekoa % 25etik beherakoa baitzen.

Oro har, 2019ko ekitaldiaren amaieran esparruen (enpresak/sektorea) pisua ez zen ia aldatu, aurreko urteko datuekin alderatuta, eta esparru


baten pisua ez zen handitu bestearen kontura. Hain zuzen, enpresa-hitzarmenek —indarrean edo luzatuta zeudenek— langileen % 24,3 babesten zuten, eta sektoreko hitzarmenek —indarrean edo luzatuta zeudenek—, berriz, % 60,7, eta, azkenik, langileen % 15ek iraungita zuten hitzarmena (5. grafikoa).

I.5. 2019RAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EMAITZAK

a) Soldata-igoerak

EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera % 2koa izan zen 2019rako (EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak ere kontuan hartuta), Estatuko hitzarmen kolektiboetarako itundutako batez besteko ordainsari-igoera baino 33 ehunen txikiagoa, Estatuan % 2,33koa³ izan baitzen (6. grafikoa).

EAEn negoziatutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailakoen banakapena eginez gero, desberdintasun handiak ikusten dira: % 1,74 EAEn negoziatutakoetan, eta % 2,39 Estatuan negoziatutakoetan.




³ Estatu osorako itundutako soldata-igoera, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak 2019-01-31n emandako informazioaren arabera.

⁴ Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak ekitaldi bakoitzaren amaieran argitaratutako datuak. Ez dira ondorengo eguneratzeak kontuan hartu.

7. GRAFIKOA

EAE. INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK. ENPRESA ETA SEKTOREA



EAEen indarrean zeuden hitzarmenetako soldata-igoeren bilakaera esparru funtzionalaren (enpresak eta sektorea) arabera aztertuta, ikusten dugu 2019an igoerak handiagoak izan zirela sektoreko esparruan enpresetan baino (hurrenez hurren, % 2,07 eta % 1,79). Datu horrek berretsi egiten du 2018an hautemandako joera; alegia, azken urteetan orokortu den joera aldatu egin da.

3. KOADROA.

2018. ETA 2019. URTEETARAKO ITUNDUTAKO SOLDATA-IGOERAK

	SOLDATA-IGOERA	
	2018	2019
EAE GUZTIRA	% 1,86	% 2,00
- EAEen erregistratuak	% 1,91	% 1,74
Araba	% 1,94	% 1,81
Bizkaia	% 2,00	% 1,70
Gipuzkoa	% 1,70	% 1,62
Lurralde artekoak	% 1,53	% 2,30
- Estatu-mailakoak*	% 1,78	% 2,39

* EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako igoera.

Orobat, esan beharra dago soldata berrikusteko edo bermatzeko klausulek oso ekarpen txikia egin ziotela batez besteko soldata-igoerari (% 2), KPIaren bilakaeraren arabera: 0,01 puntukoa besterik ez. Hori azaltzeko arrazoi bat gaur egungo inflazio txikia izan daiteke.

Bestalde, gero eta ohikoagoa da berrikusteko klausulak enpresaren helburuak betetzearekin lotuta egotea (eta klausula horien ondorioak ezagutzera ezinezkoa da), alde batetik; eta, beste batetik, urtean KPIak izan duen bilakaera erreferentzia bakartzat duten soldata bermatzeko klausulak gero eta gutxiago izatea.

Erosteko ahalmenaren bilakaera baloratu ahal izateko, adierazi behar da 2019rako adostutako batez besteko soldata-igoera handiagoa izan zela 2019ko abenduko urtetik urterako inflazioa (% 1,2) eta 2019ko batez besteko inflazioa (% 1) baino. Kontuan hartu behar da 2019an BPGda % 2,2 handitu zela.

Azkenik, 2019an EAEn erregistratutako hitzarmenetako (gure erkidegoan eragina duten estatu-esparrukoak ere aintzat hartuta) soldata-igoera % 2,25ekoa izan zen. Horrek agerian uzten duenez, negoziazio kolektiboan itundutako ordainsari-igoerek goranzko joera dute.

b) Lanaldia

2019rako indarrean zeuden eta lan-baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan itundutako batez besteko lanaldia 1.706 ordukoa izan zen EAE osorako. Alde handiak egon ziren EAEn erregistratutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailakoen artean: hurrenez hurren, 1.687 ordukoa eta 1.719 ordukoa

4. KOADROA. INDARREKO HITZARMENAK. 2019RAKO ITUNDUTAKO BATEZ BESTEKO LANALDIA

	EAEn negoziatuak (1)	EAEn aplikagarriak (2)	ESTATU osoan aplikagarriak (3)
- Hitzarmen guztiak	1.690	1.706	1.751
Lehen sektorea	--	1.776	1.728
Industria	1.689	1.708	1.755
Eraikuntza	1.702	1.702	1.740
Zerbitzuak	1.688	1.706	1.752

(1) EAEn negoziatutako eta indarrean dauden hitzarmenak.

(2) EAEn negoziatutako indarreko hitzarmenak gehi Estatuan indarrean daudenak eta EAEn eragina dutenak.

(3) Estatu osoan aplikagarri diren hitzarmenak.

Iturria: Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa eta LHK.

2019an aurreko urtekoa baino lanaldi laburragoa zuten hitzarmenen proportzioa handitu egin zen, aurreko urteetan indarrean zeuden hitzarmenekin alderatzen baditugu. Beraz, 2019an lanaldia murriztu zuten hitzarmenak guztien % 11,4 izan ziren; 2018an, % 8,5 izan ziren, eta, 2017an, % 5,6. EAEn erregistratutako hitzarmenak soilik hartzen baditugu

kontuan, ehuneko hori zertxobait handiagoa da: % 12,4. Hortaz, egiazta daiteke lanaldi-murrizketa dela negoziazio kolektiboetan berreskuratzen ari den aldarrikapen bat.

Era berean, lanaldi-murrizketa hori apur bat handiagoa da aurreko urtekoa baino. Hain zuzen, 2019an, murrizketa urteko 1,69 ordukoa izan zen batez beste; 2018an, 1,44 ordukoa izan zen, eta, 2017an, 21 minutukoa (urteko 0,35 ordukoa).

Aurreko urtean bezala, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan lanaldi-murrizketa handiagoa izan zen EAEn negoziatutakoetan baino: 1,82 ordukoa estatu-mailakoetan, eta 1,60 ordukoa EAEn negoziatutako hitzarmenetan.

4. koadroan, 2019rako jarduera-sektore bakoitzean itundutako batez besteko lanaldiak ageri dira. EAEn negoziatutako hitzarmenak, EAEn aplikagarri direnak eta Estatukoak ikus daitezke.

Oro har, EAEn aplikagarri diren hitzarmenetan adostutako lanaldiak laburragoak dira Estatu osorako adostutakoak baino (hurrenez hurren, 1.706 ordu eta 1.751 ordu).

Hala ere, jarduera-sektorearen arabera aztertuz gero, zenbait alde esanguratsu aurkituko ditugu. Lehen sektorean, 2019an indarrean zeuden hitzarmen guztiak EAetik kanpo negoziatu ziren, eta, haietan, lanaldiak handiagoak izan ziren Estatu osorako adostutakoak baino; industrian, eraikuntzan eta zerbitzuetan, berriz, nabarmen txikiagoak izan ziren.

EAEn negoziatutako hitzarmenak soilik kontuan hartuta (EAEn eragina duten estatu-esparrukoak alde batera utzita), batez besteko lanaldia 1.690 ordukoa izan zen.

EAEn aplikagarri diren hitzarmenetan, jarduera-sektore hauek dituzte lanaldirik txikienak: eraikuntzak (1.702 ordu), zerbitzuek (1.706 ordu) eta industriak (1.708 ordu). Lehen sektoreko lanaldia nabarmen handiagoa da (1.776 ordu).

c) Lanaren eta familiaren kontziliazioa

EAEn 2019an indarrean zeuden hitzarmen guztien (324 hitzarmen) % 43,4k soilik zituen lanaren eta familiaren kontziliazio-neurriak.

Hitzarmen gehienek edoskitze-eskubidea lanaldi osotan metatzearekin lotutako neurriak jasotzen zituzten, baita familia-egoera eta egoera pertsonaletarako zenbait baimen ordaindu ere, indarreko legeetan ezarritakoa hobetzen zutenak.

Indarrean zeuden enpresa-hitzarmen guztietatik, % 45,2k kontziliazio-neurriak jasotzen zituzten; sektoreko hitzarmenetan, ehuneko hori txikiagoa zen: % 34. Lurralde-esparruaren arabera, EAEn negoziatutako hitzarmenen % 38,7k arautzen zituen horrelako neurriak. EAEn eragina

duten eta Estatuan negoziatu zirenen kasuan, berriz, % 55,4 ziren. Kasu horretan, tamaina handiko enpresen hitzarmenak ziren, edo estatu-mailako sektoreko hitzarmenak, langile-kopuru handia babesten zutenak.

Aurreko bi urteetan egon zirenen antzeko ehunekoak dira. Aldaketa txikiak egon daitezke, urte jakin batean eguneratuta edo luzatuta zeuden hitzarmenen kopuruaren arabera; beraz, ez da aurrerapen nabarmenik izan gai horretan.

Bestalde, 2019an indarrean zeuden enpresa-hitzarmen kolektiboetatik, 179k zituzten berdintasun-planak; guztira, 44.177 langile zeuden haien babespean.

Hori dela eta, indarrean zeuden enpresa-hitzarmenen % 28,4k eta horrelako hitzarmenen babespean zeuden langileen % 51,6k zuten berdintasun-plana. Tamaina handiko enpresak ziren, legez derrigortuta baitaude, hitzarmen kolektiboetan horrelako planak zituztenak. EAEn negoziatutako enpresa-hitzarmenetatik, berdintasun-planak adostu zituztenetan, enpresa bakoitzak 300 langile zituen batez beste.


I.6. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N

2019an, Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan aurkeztutako inaplikazioen kopuruak behera egin zuen bigarren urtez; hain zuzen, bederatziz inaplikazio aurkeztu ziren urtean, aurreko ekitaldiko erdiak.

Inaplikazio horiek eragindako pertsonen kopuruari dagokionez, askoz gutxiago izan ziren; 2019ko inaplikazioek eragindako pertsonen kopurua nabarmen txikiagoa izan zen aurreko urteetan baino.

Hain zuzen, 2019an inaplikazioek 55 pertsonari eragin zieten; 2018an, 353 pertsonari; 2017an, 483ri; 2016an, 449ri; eta 2015ean, 689 langileri. 2019ko inaplikazioek eragindako kopurua % 84,4 txikiagoa izan zen aurreko urtean baino.

Azpimarratu beharra dago 2017an eta 2018an enpresa berak inaplikazio bana aurkeztu zuela. 2018ko inaplikazioak 238 pertsonari eragin zien (urte hartako inaplikazioek eragindako langile guztien % 67,4), eta 2017koak, 300 pertsonari (eragindako pertsona guztien % 62,1). Hau da, enpresa horren inaplikazioen ondorioz, nabarmen handitu zen urte horietako inaplikazioek eragindako pertsonen kopurua.



2019an EAEko Lan Agintaritzan gordailututako inaplikazio guztietatik, zortzitan hala jokatzeko erabakia hitzartu zuten bi aldeek kontsultaldian, eta, beste batean, hitzarmenaren batzorde paritarioan hartu zen erabakia.

Era berean, adierazi beharra dago 2017an eta 2018an hitzarmena ez aplikatzeko eskaera bakar bat ere ez zela iritsi Estatutuaren arabeko Hitzarmen Kolektiboak Ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organora (ORPRICCE).

Sektorearen arabera, hau adierazi behar da: zerbitzu-sektoreko enpresek bost inaplikazio aurkeztu zituzten, eta horiek 32 langileri eragin zieten; eraikuntza-enpresek hiru inaplikazio aurkeztu zituzten, eta 21 pertsoneri eragin zieten; eta industria-sektoreko enpresa batek inaplikazio bat aurkeztu zuen, eta horrek bi pertsonari eragin zien.

Estatu osoari dagokionez, 2019an 1.044 inaplikazio aurkeztu ziren; hain zuzen, 22.280 langile zeuden haien eraginpean. Horrenbestez, % 5,8 handitu zen inaplikazioen kopurua, aurreko urtekoaren aldean; eragindako langileak ere gehitu ziren, hain zuzen, % 6,5.

1.044 inaplikazio horien % 93,1etan (972 inaplikazio), akordioa lortu zen kontsultaldian. 46 inaplikaziotan (% 4,4), hitzarmenaren batzorde paritarioan lortu zen akordioa. 17tan (% 1,6), alde biko organoaren bitartekoari esker lortu zen, eta bitan (% 0,2), berriz, organo horren laudo baten bidez. Zazpi kasutan (% 0,7), hiru alderdiko organo batek hartu zuen erabakia.

2019an ere, inaplikazioen % 63,9 zerbitzu-sektorean gertatu ziren nagusiki; eraikuntza-sektorea izan zen hurrena, inaplikazioen % 11,5ekin; eta, ondoren, industria (% 11,5) eta lehen sektorea (% 4).

EAEen hitzarmenak ez aplikatzeko gaiei dagokienez, soldataren zenbatekoa edo ordainsari-sistema izan ziren 9 inaplikazioen 7ren gai nagusia. Beste

bi inaplikazioetan, lanaldia, ordutegia eta lan-denboraren banaketa izan ziren gai nagusiak.

Estatuan, aplikatu ez ziren lan-baldintzak soldaten zenbatekoarekin eta ordainsari-sistemarekin lotutakoak izan ziren; bakarrik edo beste gai batzuekin batera, inaplikazio guztien % 75,5 izan ziren.

Adierazi beharra dago, bestalde, EAEn aurkeztu ziren inaplikazio guztietatik bost aurkeztu zirela Bizkaiko Lan Agintaritzaren aurrean, lau Gipuzkoan, eta bat ere ez Arabako Lurralde Historikoan.

Azkenik, azpimarratzekoa da inaplikazioek eragindako pertsonen kopurua oso txikia dela eta nabarmen txikitzen ari dela, eta, gehienetan, prozedura kontsultaldian amaitzen dela, aldean akordioaren bidez. Hau da, hiru alderdiko organoak oso gutxitan hartzen du esku.


I.7. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2020AREN HASIERAN

2020. urtearen hasieran, hainbat hitzarmen (hainbat urtetarako indarraldikoak) berritu dira; 225.686 langile babesten dituzte, guztien % 37,3. 286.819 langilek (% 47,4) hitzarmenak luzatuta eta berritu gabe dituzte, eta 92.443 langilek (% 15,3), berriz, iraungita.

Urtearen hasierako egoera hori apur bat hobea da 2019. urtearen hasierakoa baino; orduan, hitzarmenak berritu gabe zituzten langileen ehunekoa % 47,3 zen, eta hitzarmenak iraungita zituztenena, 3,2 puntu handiagoa.

EAEko sektore-negoiazioari bereziki dagokionez, hitzarmena berritu gabe dituzten langileen ehunekoa (% 44,2) aurreko urtekoaren antzekoa da. Dena den, adierazi beharra dago itunpeko irakaskuntzan, ikastoletan eta Bizkaiko industria siderometalurgikoan lortutako sektoreko hitzarmenak ez direla kontuan izan. Akordio horiek ere barne hartuta, hitzarmena berritu gabe duten langileen ehunekoa ia 18 puntu txikituko litzateke sektoreko esparruan.

9. GRAFIKOA
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2020AREN HASIERAN



- 2020an hitzarmen iraungia duten eta goragoko mailako beste esparru-hitzarmenen babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2020an luzatuta eta berritzeko dauden hitzarmenak dituzten langileen ehunekoa
- 2020an hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa

Lurralde arteko esparruan, langileen % 82,1ek du hitzarmena luzatuta eta berritzeko. Dena den, akordioa lortu da garrantzi handiko bi sektoretan: EAEko gizarte-ekimeneko irakaskuntza arautuko ikastetxeen sektorean (12.000 langile baino gehiago) eta ikastolenean (4.600 langile baino gehiago). Hitzarmen horiek 2020an zehar erregistratuko dira, eta, hortaz, aipatutako ehunekoa txikitu egingo da. Edonola ere, hasierako egoera hobea da aurreko urtekoa baino; izan ere, 2019aren hasieran, langileen % 95,7k zuen hitzarmena luzapen-egoeran. Halaber, aipatzekoa da 2020ko indarreko hitzarmenen artean, EAEko osasun-garraioko hitzarmena, lurralde-esparrukoak ordezkatzeko baititu.

Lurralde historikoen egoera aztertuta, egoerak okerrera egin du Araban, indarrean dauden hitzarmenen ehunekoa (% 38,9) aurreko urtekoa (% 49,2) baino 10 puntu inguru txikiagoa baita

Bizkaian, langileen % 40,3k du hitzarmena indarrean. 2019an, % 41ek zuen. Alabaina, industria siderometalurgikoko hitzarmena erregistratu gabe dago oraindik, eta, erregistratzen denean, ehunekoak nabarmen egingo du gora (gutxi gorabehera, % 60 izango da).

Azkenik, Gipuzkoari dagokionez, egoera zertxobait hobea da 2019koa baino. 2020an, langileen % 20,8k du hitzarmena eguneratuta, eta, 2019an, % 15,7k.

Hitzarmenak iraungita dituzten langileei dagokienez, esan beharra dago lurralde arteko esparruan ez dagoela langilerik egoera horretan. Bestalde, EAEn, 3,2 puntu txikitu da hitzarmenak iraungita dituzten langileen ehunekoa; hain zuzen, 2020aren hasieran, % 15,3 zeuden egoera horretan, eta, aurreko urtean, berriz, % 18,5.

I.8. LAN-GATAZKAK

GREBAK

Lan eta Justizia Sailak argitaratutako informazioaren arabera, 304 greba egin ziren 2019an Euskadin. 79.804 pertsonak hartu zuten parte haietan, eta lan egin gabeko 391.774 lanaldi sortu ziren. Aurreko ekitaldian, datu horiek % 15,2, % 63,9 eta % 253,5 handiagoak izan ziren, hurrenez hurren.

2019an lan-gatazken kopuruan izandako gorakada handia bi sektoretako langileek egindako greben ondorio izan zen, batik bat; industria siderometalurgikoan eta, neurri txikiago batean, itunpeko irakaskuntzan egindako greben ondorio, hain zuzen. Bi sektore horietan, greben ondorioz lan egin gabe geratu ziren egunen ia % 83 izan zen.

2019an ere greba gehienak hirugarren sektorean egin ziren (220, greba guztien % 72,4), baina ez dira sektore horretakoak ez greba egin zuten langileen ehunekorik handiena (13.853, langile guztien % 17,4), ez lan egin gabeko egunen ehunekorik handiena (72.846, lanegun guztien (% 18,4).

2019an, industriakoak izan ziren greba egin zuten langile gehienak (65.751, langile guztien % 82,4), baita galdutako egun gehienak (318.079, egun guztien % 81,2), batez ere Bizkaiko industria siderometalurgikoan izandako gatazkaren ondorioz.

Bestalde, zazpi greba egin ziren eraikuntzan, denak enpresa jakinetan; guztira, 197 langilek egin zuten greba (% 0,2), eta 785 lanegun galdu ziren. Bestalde, nekazaritza-sektorean, greba bat egin zen; hiru langilek egin zuten, eta 64 lanegun galdu ziren.

Greben % 73,7tan, negoziazio kolektiboa izan zen funtsezko gatazka; greba egin zuten langile guztien % 95,9k hartu zuen parte greba haietan, eta lan egin gabeko egun guztien % 97,2 galdu zen.

Datuak lurraldearen arabera aztertuta, 116 greba egin ziren Bizkaian; 72.546 langilek hartu zuten parte haietan, eta 345.653 izan ziren lan egin gabeko egunak. Gipuzkoan, 136 greba egin ziren; 3.789 langilek hartu zuten parte, eta 36.199 lanegun geratu ziren lan egin gabe. Araban, azkenik, 52 greba egin ziren, 3.469 parte-hartzailerekin, eta 9.922 lanegun galdu ziren.

**5. KOADROA.
LAN-GREBAK**

	GREBA-KOPURUA			PARTE-HARTZAILEAK			LAN EGIN GABEKO EGUNAK		
	2019	2018	ALDAK. (%)	2019	2018	ALDAK. (%)	2019	2018	ALDAK. (%)
Araba	52	37	40,5	3.469	6.705	-48,3	9.922	9.723	2,1
Gipuzkoa	136	97	40,2	3.789	12.819	-70,4	36.199	34.320	5,5
Bizkaia	116	130	-10,8	72.546	29.172	148,7	345.653	66.795	417,5
EAE GUZTIRA	304	264	15,2	79.804	48.696	63,9	391.774	110.838	253,5

Oharra: 2019ko datuetan, ez da sartu irailetik abendura bitartean Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioan aurkeztutako —eta EAEn eragina duten— greben kopuruari, parte-hartzaileei eta lan egin gabeko egunei buruzko informaziorik.

Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza.

II. AFILIAZIOAREN, KONTRATAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

Azken urteetan, Euskadiko ekonomiak hazkunde-tasa handiak izan ditu: 2015ean % 3, 2016an % 3,3, 2017an % 2,8 eta 2018an % 3. Hala ere, 2019ko azken hiruhilekoetan, nolabaiteko moteltzea gertatu zen; hazkundera aurreko hiruhilekoetan baino txikiagoa izan zen. Dena den, ekitaldiaren amaieran behin betiko datuak izan zain, 2019ko BPGdaren hazkundera % 2tik gorakoa izango dela kalkulatu da; hain zuzen, % 2,2koa izango dela.

2020rako, aurreikuspenek iradokitzen dute Euskadiko ekonomiako hazkunde-erritmoek moteltzen jarraituko dutela; hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak % 1,9ko hazkundera kalkulatu du.

EAEko ekonomiak azken urteetan izan duen portaera onari esker, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen kopurua 2008ko uztailera maximora hurbildu da. 2019an egindako kontratuen kopurua, ordea, aurreko urtekoa baino % 0,7 handiagoa izan zen, besterik ez.

II.1. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAK

2019ko abenduan, 980.592 pertsona zeuden Gizarte Segurantzako afiliatuta (hileko batezbestekoa); hots, urtebete lehenago baino % 1,9 gehiago. 2014ko martxoaz geroztik, EAEko afiliatuen kopurua urterik urte handitzen ari da; izan ere, 2008ko uztailera maximo historikotik (982.935 afiliatu) gero eta hurbilago dago.


2018ko abendutik 2019ko abendura bitartean, 18.488 pertsona gehiago afiliatu ziren Gizarte Segurantzaren (hileko batezbestekoa); haietatik, herenak inguru (6.160) atzerritarrak ziren.

Batik bat, Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen kopurua handitu da (% 2,6); izan ere, laugarren urtez, Langile Autonomoen Erregimen Bereziko afiliatu-kopurua pixka bat txikitu da (-% 0,9).

2018ko abendutik 2019ko abendura bitartean, 20.069 pertsona afiliatu ziren Erregimen Orokorrean (hileko batezbestekoa); haietatik, 7.824 (afiliatutako pertsona guztien % 39) zaintzaile ez-profesionalak ziren.


Erregimen Orokorrean, Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutako kopuruak behera egin zuen (-% 2,6), baita Nekazaritzako Sistema Bereziko langileen kopuruak ere (-% 1).

10. GRAFIKOA
EAE-N GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONEN
KOPURUAREN BILAKAERA (HIL BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)



Jarraian, afiliatuen osaera aztertuko dugu, lanaldi- eta kontratu-
motaren arabera. Horretarako, Gizarte Segurantzako Erregimen
Orokorreko afiliazioari buruzko datuak erabiliko ditugu, honako hauek
kenduta: Nekazaritzako Sistema Berezikoak, Etxeko Langileen Sistema
Berezikoak, zaintzaile ez-profesionalak eta kontraturik gabeko
afiliatuak (funtzionarioak).

11. GRAFIKOA
ERREGIMEN OROKORREKO AFILIZIOA, LANALDI-MOTAREN ARABERA. EAE
(URTEROKO DATUAK, 12-31KOAK)*



■ GAINERAKOAK (aldizkako finkoak, praktikakoak eta prestakuntzakoak) ■ Lanaldi partziala ■ Lanaldi osoa

(* Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsak).

Iturria: Gizarte Segurantza.


a) Lanaldia

Datuak lanaldi-motaren arabera aztertuz gero⁵ (11. grafikoa), ikusten dugu 2019ko ekitaldiaren amaieran eta aurreko ekitaldietan afiliatutako pertsonen banaketa oso antzekoa dela. Hain zuzen, afiliatutako pertsonen % 73,9k lanaldi osoko kontratua zuen, eta % 22,9k, berriz, lanaldi partzialekoa.

b) Kontratua

12. grafikoan, afiliatuen banaketa kontratu-motaren arabera ageri da. 2019ko abenduaren 31n, kontratu mugagabea zuten langileei dagokienez, aurreko urteko data berean baino 12.606 pertsona gehiago zeuden Erregimen Orokorrean afiliatuta⁵; alegia, % 2,8 gehiago. Bestalde, aldi baterako kontratua zuten pertsonen afiliazioa % 0,7 txikitu zen (1.548 pertsona gutxiago).

12. GRAFIKOA
ERREGIMEN OROKORREKO AFILAZIOA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA. EAE
(URTEROKO DATUAK, 12-31KOAK)*



(* Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsak).
Iturria: Gizarte Segurantzza.


Hortaz, apur bat handitu zen kontratu mugagabea zuten afiliatuen pisu erlatiboa (% 66,4), 2018koa (% 65,6) baino ia puntu bat txikiagoa izan baitzen. Orobat, pixka bat txikitu zen (0,7 puntu) aldi baterako kontratua zutenen ehunekoa (% 30,4).

⁵ Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsak) kontuan hartu gabe.


Ondorio gisa, nabarmentzekoa da kontratu mugagabea zuten afiliatuen fluxu positibo garbia (kaleratzearen, erretiroaren edo heriotzaren ondoriozko bajak baino alta gehiago). Alde negatibotik, ordea, aipatu behar da kontratu finkoa zuten pertsonen afiliazio-erritmoa motelagoa izan zela (% 2,8) 2018an baino (% 4,1). 2019an ekintzaileei laguntzeko kontratua amaitu izana moteltze horren arrazoietako bat izan daiteke. Aurrerago aztertuko dugu gai hori, jakinarazitako kontratazioaren bilakaera jorratzean.

II.2. JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOA


2019an, EAEko enplegu-zerbitzu publikoari jakinarazitako kontratuen guztizko kopurua ez zen ia aldatu, aurreko urteko datuarekin alderatuta (2018an baino % 0,7 handiagoa izan zen).



2019an, seigarren urtez jarraian handitu zen kontratazioa, urtetik urterako terminoetan. Dena den, aurreko urteetan baino txikiagoa izan zen hazkundea (% 4,5 2018an, % 3,4 2017an eta % 6,8 2016an). Hala ere, badirudi urtearen amaieran nolabaiteko gorakada gertatu dela.



Kontratu mugagabeen bilakaerari dagokionez, haien kopurua handitzen ari da 2013az geroztik, baina, ehunekotan, hazkunde txikiagoa izan zuten 2018an baino. Edonola ere, krisiaren hasierako mailen gainetik daude.




⁶ Tasa leunduak erabiltzen direnez, ausazko gorabeherak partzialki ezabatzen dira eta joeratik kanpoko datuak baztertu egiten dira; hartara, joeraren noranzkoa hobeto zehatz daiteke.

Dagoeneko aurreratu dugunez, hau izan daiteke horren azalpenetako bat: 2019an ekintzaileei laguntzeko kontratu mugagabea (3/2012 Legeak, uztailaren 6koak, Lan-merkatuko erreformaren presazko neurrienak, ezarria) desagertu izana.

Kontratu-mota horrek, urtebeteko probaldia izan zuenak, hazkundera izan zuen urtez urte 2012an hasi zenetik; esaterako, 2018an, horrelako 13.389 kontratu mugagabe formalizatu ziren EAEn.

Beraz, eta alderaketan kontratu horiek ez baditugu kontuan hartzen, 2019an sinatutako gainerako kontratu mugagabeak 2018an baino % 11 izan ziren.



Aldi baterako kontratuak urtero egiten diren kontratu guztien % 91,7 dira, eta, 2019an, hain zuzen, aurreko urtean baino % 1,3 gehiago sinatu ziren.

Azkenik, eta jakinarazitako kontratazioa lanaldi-motaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu, aurreko urtean ez bezala, lanaldi osoko kontratazioak lanaldi partzialekoak baino hazkunde txikiagoa izan zuela (hurrenez hurren, % 0,2 eta % 1,6).

**6. KOADROA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK, LANALDI-MOTAREN ARABERA**


	2018	2019	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
Jakinarazitako kontratuak	1.001.181	1.008.175	% 0,7
Lanaldi osokoak, guztira	590.259	591.410	% 0,2
Lanaldi partzialekoak, guztira	398.591	404.875	% 1,6
Aldizkako finkoak, guztira	3.022	4.333	% 43,4
Praktikakoak eta prestakuntzakoak	9.309	7.557	-% 18,8

Iturria: EEZP.

Aldi baterako kontratuen Iraupena

2019an ere, aldi baterako kontratu gehienak oso iraunaldi txikikoak izan ziren; esate baterako, zazpi urtetik beherakoen ehunekoa puntu bat handitu zen, % 36,7tik % 37,7ra. Bestalde, kontratu mugagabeak puntu bat gutxitu ziren (% 32,5 izan ziren 2018an, eta % 31,5, 2019an). Bi kontratu-mota horiek 2019an sinatutako kontratu guztien % 69,2 izan ziren; hots, ehuneko hori ia ez da 2009az geroztik aldatu.

**17. GRAFIKOA
EAE-KO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BANAKETA, IRAUPENAREN ARABERA
(URTEROKO %-A, GUZTIZKOAREN GAINEAN)**



Iturria: 2009tik 2017ra bitarteko datuak, Lanbide. 2018ko eta 2019ko datuak, EEZP.

Hau da, errotazioa —hots, kontratatutako pertsona bakoitzeko sinatutako kontratuen kopurua— apur bat handitu da; 2018an, 3,06 kontratu sinatu ziren pertsona bakoitzeko, eta, 2019an, 3,11.



Banaketa sektoriala


Zerbitzu-sektorean soilik handitu zen sinatutako kontratuen kopurua (2018an baino 13.805 kontratu gehiago); alegia, sektore horren pisu erlatiboak gora egin zuen (egindako kontratu guztien % 79,9). Ondoren, industrian, kontratu guztien % 14,9 zegoen, eta eraikuntzak (% 3,4) eta lehen sektoreak (% 1,7) pisu erlatibo nabarmen txikiagoa zuten.

Aurreko txostenetan adierazi denez, kontuan izan behar da zerbitzu-sektoreak EAEko BPGdaren ia % 70 sortzen duela eta sektore horretako zenbait jarduera urtaro jakin batzuetan aritzen direla bereziki.

II.3. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA ETA LANGABEZIA-TASA

Jakinarazitako kontratazioaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaerarekin bat etorriz, Euskadiko enplegu-bulegoetan izena emandako langabeen kopurua txikitzen ari da, urtetik urterako terminoetan, 2013ko abenduaz geroztik.

19. GRAFIKOA
EAE-KO ENPLEGU-BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA
(HILEKO AZKEN EGUNA)



Iturria: EEZP.


2019ko abenduan, 114.162 pertsona zeuden enplegu-bulegoetan izena emanda; hau da, aurreko urteko abenduan baino 5.512 pertsona gutxiago (% 4,6 gutxiago).

Erregistratutako pertsonen % 55,2 emakumeak ziren, eta gainerako % 44,8ak, gizonak. Gainera, erdiak baino gehiago (% 51) 45 urtetik gorakoak ziren.

Edonola ere, azpimarratu behar da 2019an emakumeen langabezia gizonena baino gehiago txikitu zela; emakumeena % 5,5 txikitu zen, eta gizonena, berriz, % 3,5.


Langabezia-tasari dagokionez, Eustaten Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkestako (BJA) datuek jakitera ematen dute 2019ko langabezia-tasa % 10etik beherakoa zela; % 9,6koa, hain zuzen. Sexuaren arabera, gizonen langabezia-tasa % 8,7koa da, eta emakumeena, % 10,5koa.

20. GRAFIKOA
EAE-KO LANGABEZIA-TASAK. BJA (URTEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Eustat (BJA).

21. GRAFIKOA
EAE-KO LANGABEZIA-TASAK, SEXUAREN ARABERA. BJA (URTEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Eustat (BJA).

2019ko laugarren hiruhilekoan, langabeen kopuruak behera egin zuen (2018ko aldi berean baino 10.200 langabe gutxiago zeuden); alde batetik, landunen kopuruak gora egin zuelako (8.100 landun gehiago), eta, bestetik, biztanleria aktiboan 2.100 pertsona gutxiago zeudelako.

Biztanleria aktiboaren beherakada gizonen kopurua txikitzearen ondorio izan da; hain zuzen, aipatutako hiruhilekoan, 3.300 gizon gutxiago zeuden biztanleria aktiboan. Aitzitik, lanean zeuden edo lana aktiboki bilatzen ari ziren emakumeen kopurua handitu egin zen: 1.200 emakume gehiago ziren.

Azkenik, esan behar da 16 urteko eta gehiagoko biztanle-kopuruaren gorakadaren eta biztanleria aktiboaren beherakadaren ondorioz biztanleria ez-aktiboa handitu egin zela: 808.600 pertsona ziren 2019ko azken hiruhilekoan, aurreko urtean baino 7.300 gehiago.

7. KOADROA
BIZTANLERIA LANDUNA, LANGABEA ETA EZ-AKTIBOA

	16 urteko eta gehiagoko biztanleak	Biztanle aktiboak	Biztanle landunak	Biztanle langabeak	Biztanle ez- aktiboak
2019ko IV. hiruhilekoa	1.851.200	1.042.600	945.500	97.100	808.600
2018ko IV. hiruhilekoa	1.845.900	1.044.700	937.400	107.300	801.300
Aldakuntza	+5.300	-2.100	+8.100	-10.200	+7.300

Iturria: Eustat (BJA).

III. ONDORIOAK

Kontratazioa, afiliazioa eta langabezia

Aurreko txostenetan adierazi dugunez, Euskadiko ekonomiak azken urteetan izandako hazkundeari esker, enplegu-maila handitu egin da, eta langabezia-tasa, berriz, txikitu.

2019an sinatutako kontratuen kopurua aurreko urtekoa baino % 0,7 soilik handitu arren, afiliatu-kopurua 2008ko martxoko maximotik hurbil zegoen 2019aren amaieran.

EAEn, gora egin zuen Erregimen Orokorrean afiliatutakoen kopuruak. Kontratu mugagabea zuten afiliatuen pisu erlatiboa pixka bat handitu zen, betiere, Nekazaritzako Sistema Bereziko eta Etxeko Langileen Sistema Bereziko langileak, zaintzaile ez-profesionalak eta funtzionarioak kontuan hartzen ez baditugu. Gainera, lanaldi osoko kontratua zutenen eta lanaldi partzialekoa zutenen arteko proportzioak bere horretan jarraitu zuen (hurrenez hurren, % 73,9 eta % 22,9).

Azken urteetan lehen aldiz, langabezia-tasa % 10etik behera izan da (% 9,6), baina gogoan izan beharra dago krisialdiaren aurreko mailatik gora zegoela.

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboari dagokionez, langileen % 61,1ek eguneratuta zuen hitzarmena 2019. urtearen amaieran; azken urteetako ehunekorik handiena izan zen. Kontuan hartu ditugu 2019an itunpeko irakaskuntzan, ikastoletan eta Bizkaiko industria siderometalurgikoetan lortutako akordioak, nahiz eta 2019aren amaieran hitzarmenak artean erregistratu gabe zeuden.

Orobat, azpimarratu behar da negoziazio kolektiboko gure esparruak berreskuratzeko joera positiboa sendotzen ari dela. Aurreko urtearekin alderatuta, EAEn negoziatutako eta indarrean dauden hitzarmenek babesten dituzten langileen ehunekoa apur bat handitu zen.

Edukiak

EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan —eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan— 2019rako batez beste adostutako soldata-igoera % 2koa izan zen.

EAEn negoziatutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailakoen banakapena eginez gero, desberdintasun handiak ikusten dira: % 1,74 EAEn negoziatutakoetan, eta % 2,39 Estatuan negoziatutakoetan.

2019an EAEn erregistratutako hitzarmenetako (gure erkidegoan eragina duten estatu-esparrukoak ere aintzat hartuta) soldata-igoera % 2,25ekoa izan zen. Horrek agerian uzten duenez, negoziazio kolektiboan itundutako ordainsari-igoerek goranzko joera dute.

2019an aurreko urtean baino lanaldi laburragoa barne hartzen zuten hitzarmenen ehunekoa handitu egin zen. Hortaz, egiaztatzen da lanaldi-murrizketa dela negoziazio kolektiboetan berreskuratzen ari den aldarrikapen bat.

Lan-gatazkak

2019an, greben ondorioz, asko handitu zen lan egin gabeko egunen kopurua, gehienbat sektore-arloko bi gatazkaren ondorioz. Bizkaiko industria siderometalurgikokoa izan zen bat, eta itunpeko irakaskuntzakoa, bestea, txikiagoa izan arren.